



## LIBURUA

**Izenburua:** 'Euli bat dut bihotzean'.

**Testua:** Leire Bilbao. **Marrazkiak:** Maite Gurrutxaga.

**Orrialde kopurua:** 84 orrialde. **Adina:** 10 urtetik gorakoentzat. **Argitaletxea:** Elkar.

## Leire Bilbao

IDAZLEA

«Askotan, barrutik garena beste modu batera erakusten dugu kanpotik»

**G**orka betidanik sentitu izan da arraro samarra. Goiz batean, esnatu, ispilu aurrean jarri, eta euli bihurtuta ikusiko du bere burua. Zer gertatu zaio? Benetan euli bihurtu da? Gainerakoek ere hala ikusten ote dute? Franz Kafka idazlearen *Metamorfosia* liburuari omenaldi txiki bat egin nahi izan dio Leire Bilbao horrekin. Maite Gurrutxagak apaindu ditu Bilbaoren hitzak.

**Oso bitxia da liburuaren hasiera. Zabaldu orduko, z hizkiz beteriko orrialde bat ikusten da.**

Literaturan hitzekin jolastu behar dela uste dut nik, eta horixe proposatzen da liburuaren hasieran: jolas bat. Lehen hiru orrialdeak z hizkiz beterik daude: loguraren z da, ametsaren z. Zhizkien zurrunbilan hiru esaldi solte daude. Esaldi horiek adierazten dute lotan dagoela Gorka, liburuiko protagonista. Lotan dagoen bitartean, euli bat dabilkio jira eta bueltaka. Z hori, beraz, ez da loguraren z soilik; euliaren burrunbaren zere bada. Beraz, loaren eta euliaren arteko jolas moduko bat da.

**Lotan dago Gorka, eta esnatzean, euli bihurtu dela sentitzen du.**

Hori da. Gorka, jaikitzean, arraro sentitzen da: sekula baino arinago eta biziago dagoela iruditzen zaio. Ispilu aurrean jartzen da, eta ez du bere burua ikusten; bai, ordea, euli bat, gauean buruaren inguruan bueltaka sentitu duen eulia. Hala, Kafkaren *Metamorfosia* liburuan

gertatzen den bezala, eraldatua esnatu dela eta euli bihurtuta jaiki dela pentsatzen du.

**Egia esan, betidanik sentitu izan da Gorka arraro samarra.**

Bai, Gorka berezi sentitzen da, bestelako. Euli bat du bihotz barruan bueltaka. Batez ere gertatzen zaiona da alde izugarria dagoela besteek nola ikusten duten eta bere burua nola ikusten duen. Bere burua bilatzen ari da, beraz. Hirugarren pertsonan, besteek nola ikusten duten kontatzen da, eta, bestalde, nork bere burua nola ikusten duen. Perspektibekin jokatzen dut une oro liburuan. Denbora saltoak daude, eta, modu horretan, irakurlea engainatu egiten dut. Hala, Gorka ohetik jaiki dela eta ispilu aurrean euli bat ikusi duela kontatzen da liburu hasieran. Ondoren, ama dator, eta amak ez du ikusten semea. Ez dakigu jaiki den edo ez, zeren hurrengo kapitulu batean gosaldu duela kontatzen baita. Beraz, une oro denbora

saltoak egiten dira, eta ez dago argi noiz zer gertatu den. Hortaz, badakigu besteek nola sumatzen duten Gorka, baina ez nola ikusten duten.

**Nondik atera zenuen liburuaren idazteko ideia?**

Kafkaren *Metamorfosia* liburuaren ederra da, eta berriz irakurri nuen orain dela gutxi. Irakurtzen ari nintzela, Kafka nola sentitzen ote zen pentsatzen jarri nintzen. Askotan, perspektiba kontua izaten baita: besteek nola ikusten gaituzten eta nola ikusten garen gu. Gorkaren adinean, denok sentitzen gara zertxobait bestelako edo ezberdin; alegia, guztiok dugu euli bat bueltaka bihotzean. Beraz, Kafkaren *Metamorfosia* liburuari gorazarre txiki bat eginez, gai hori lantzea bururatu zitzaidan.

**Liburu arina da irakurtzeko, ezta?**

Bai, oso istorio arina da. Atal oso laburrak ditu; kapituluak oso txikiak dira. Familiako kideak nolakoak diren kontatzen da, zertzelada txikiak emanez: nolakoa den ama, aita, arreba eta haiekin bizi den aitona. Gorkak aitonaarekin harreman berezia du, aitona ohartzen delako Gorkak euli bat duela bihotzean.

**Maite Gurrutxagak irudikatu ditu bihotzeko euliak eta beste. Gustura?**

Maitek oso lan polita egin duela uste dut. Erreparatzen badiozu, eulirik ez da ageri liburu osoan. Azken batean, istorioak hori kontatzen du: askotan, barrutik garena beste modu batera erakusten dugu kanpotik. Beraz, Gorkak euli bihurtu dela uste badu ere, ez da eulirik agertzen istorio guztian. Azkenean, Gorka mutil arrunta delako. Hain zuzen, hori da mezua: denok sentitzen gara arraro, berezi, nahiz eta arruntak edo normalak izan.

**Amaiera ere hasieraren tankerakoa da.**

Istorioko amaieran, lagun batekin topo egiten du parkean Gorkak, Manexekin. Orduan ohartzen da Gorka ez dela munduan den pertsona berezi bakarra. Barrez amaitzen da azken kapituluak, eta *kar-kar-kar*-ez betetzen da amaiera aldeko paragrafoetako bat.

